



## Gipuzkoako udalerrri aberatsenetakoa da Irura

**BIZTANLERIA** ▶ La Caixaren  
'Anuario economico'-ren arabera,  
goraka ari da egiten etengabe

**INDUSTRIA** ▶ Hazi egin da eta ez  
dago langabeturik ia; lo-hiri ez  
bilakatzea nahi du Udalak ▶ 2



### Lur azpiko edukiontzia, zaborra kudeatzeko era berria

**ALKIZA** ▶ Zaborra kudeatzeko era berria dute martxan  
Alkizan: lur azpiko edukiontzia. Aurretik herritarrek zituzten arazoi  
aurre egiteko jarri ditu Udalak, hiru puntutan: erdigunean,  
Anoetako bidetik joanda plazatik ehun bat metrora; Amalur etxe-  
aren ondoan, Asteasurako bidean; eta Basatxabal eta Antzieta

baserrien inguruan, Anoetarako bidean. Guztira, 13 edukiontzi  
jarri dituzte, horietako bost erdigunean. Zabor organikoak, beira,  
papera eta kartoia eta ontziak eta plastikoak jasoko dira horietan  
guztietan. «Kostata, baina bete egin dugu urteetako ametsa»,  
azaldu dio HITZARI Joxe Mari Aranzabe alkateordeak. I. GARCIA ▶ 4

**LEITZA** ▶

**Oinatz  
Bengoetxea,  
txapeldun  
Lekeition**

Pilotariak Zearra izan  
du bikotelagun ▶ 7

**LIZARTZA** ▶

**Jaialdiak, oroigarriaren aurkezpena  
eta bazkaria iragarri dituzte  
Kaxianoren omenezko astean**

Hilaren 20tik 25era omenduko dute herrikideek Kaxiano  
Ibarguren; bazkarirako txartelak salgai daude jada ▶ 6

**TOLOSA** ▶

**Kultur  
jardueraz  
beterik  
dator iraila**

Musika, erakusketak,  
hitzaldiak, tailerrak...  
izango dira ▶ 3

**TOLOSA** ▶

**Usakume  
tiraketa  
Martin-Txiki  
zelaian**

Ehiztari Elkartek  
antolatu du  
larunbaterako ▶ 3

**ALEGIA** ▶

**Intxurre  
taldea,  
denboraldi  
berriari so**

Lau futbol talde  
osatu dituzte, eta  
futbol 7rako beste  
bat dute xede ▶ 5

**LEITZA** ▶

**Ateka Beltza  
etxearen  
erabileraz,  
bilera**

Gazte Asanbladak  
herritar guztei egin  
die gonbita ▶ 7

## EKONOMIA ▶

# Irura, berriz ere Gipuzkoako udalerrri aberatsenen artean

La Caixaren 'Anuario economico' urtekariaren arabera, biztanleria goraka ari da egiten etengabe herri horretan; 700etik 1.160era heldu da urte gutxiren buruan

I. ETXEBESTE - N. LATABURU

Arrasatekoak, Astigarragakoak, Donostiakoak, Elgoibarkoak, Irurakoak, Oiartzungoak eta Zarauzkoak dira, La Caixaren egindako urtekari ekonomikoren arabera, Gipuzkoa osotik urteko errenta handiena duten herritarrak; hain zuzen ere, 14.500 eurotik gorako irabaziak lortzen dituzte urtero. Azken urteetan erreferente bilakatu da La Caixaren *Anuario economico* urtekaria, probintzia bakoitzeko ekonomiaren eta ongizatearen —*Anuario social* urtekariaren bitartez— bilakaera nolako den azaltzen baitu, hain zuzen, mila biztanletik gora dituzten herrietan.

Adierazle ezberdinak erabiltzen dituzte urtekari horretako arduradunek herrien aberastasuna neurtzeko: adibidez, udalerrriak zenbat biztanle dituen, iazko biztanleriaren arabera langabezi tasa, maila ekonomikoa, telefono kopurua, motordun ibilgailuen eta autoen kopurua eta ostalaritza jarduerak. Horien bitartez, Gipuzkoako herririk aberatsenak zeintzun diren jakiteko aukera ematen dute. Eskualdean, Alegia, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Irura, Tolosa, Villabona eta Zizurkil dira mila biztanletik gora dituzten herriak, eta horietatik Irura da aberatsena.

Azken urteetan eutsi egiten dio Irurak probintziako herri aberatsenetakoa izateari. «Bigarren urtez azaldu gara zerrenda honetako lehen postuetan eta hori beti da pozgarria eta, aldi berean, harrigarria», azaldu du Irurako alkate Mariami Ugaldek. Biztanleen kopurua goraka ari da egiten eten gabe —700 biztanletik 1.160 ingurura urte gutxien buruan—, eta hori udal arduradunek egindako «etxebizitza publikoen eta libreen promozioa dela-eta» omen da. «Gakoa babes ofizialeko eta etxebizitza libreen arteko oreka egokia da». Hau dela eta, jende mordo «animatu» da Irura bizitzera etortzen, «garraino, komunikazio sare eta zerbitzu onak» eskaintzen dituelako. Emaitza hauen harira, azterketa bat eman zuen duela hilabete batzuk Eustat erakundeak argitaratu Euskal Autonomia Erkidegoan erosotasun handie-



Gipuzkoako udalerrri aberatsenetakoa da Irura; azken urteetan hazi egin da bertako industria. A. ETXANIZ

## DATUAK ▶

Udalerrria	Biztanleria	Langabezia (%)	Maila ekonomikoa	Telefonoak	Ibilgailuak	Autoak	Ostalaritza
Alegia	1.659	2,9	8	667	915	659	8
Anoeta	1.776	3,2	9	765	1.084	783	9
Asteasu	1.346	2,0	9	628	1.034	645	9
Ibarra	4.372	3,1	8	1.630	2.327	1.745	22
Irura	1.079	2,7	10	621	685	419	7
Tolosa	17.798	3,1	9	5.905	8.805	6.664	128
Villabona	5.742	3,1	9	2.358	2.926	2.203	31
Zizurkil	2.855	3,5	9	1.230	1.749	1.255	13

neko etxebizitzak zituzten herrien inguruan, eta Bizkaiko Sopelarekin, Berangorekin, Getxorekin eta Elorriorekin batera, Irura aipatzen zuen.

Haatik, zerrenda honen beste alderdia, herri behartsuena alegia, «arduratzeko modukoa» da eta «denek maila berdina aliegatzea lortu behar dugu», adierazi du Ugaldek. Emaitza horietan zeresan handia izan du langabezi tasaren jaitsierak. «Iruran apenas dago langabeturik, industria bera ere hazi egin baita». Udalaren aldetik, Irura lo-hiri bilaka ez dadin dute helburu. Horretarako, kirol eta kultur zerbitzuak jorratzen eta handitzen ari dira. «Ikastaroak, gazteei zuzendutako ekintzak, ikaste-

txean ikasteko adina luzatzen eta etorkizunerako herriaren proiektua» lantzen ari dira.

## Gastatzeko eta aurrezteko

Eskualdeen artean aberatsena Deba Garaia dela dio La Caixaren urtekari ekonomikoa, aberastasunen banaketa nahiko beretsua delako bertako biztanleen artean. Bada Tolo-

saldea ez da atzean geratzen, 10etik 10eko maila ekonomikorekin herririk aberatsena Irura den arren, atzetik dituelako Anoeta (9), Asteasu (9), Tolosa (9), Villabona (9), Zizurkil (9), Alegia (8) eta Ibarra (8).

Biztanleko familia errenta honela definitzen du La Caixaren urtekari ekonomikoa: familia gastatzeko eta aurrezteko duten errenta maila. Eskualde honetako egoera sozioekonomikoa ona dela ondorioztatu daiteke, beraz, urtekari horretan aintzat hartzen diren herrietatik maila ekonomikoa baxuena duten herriek, Alegiak eta Ibarrak, 10etik 8ko puntua izango dutelako izan, eta gainerako guztiak hortik gora daudelako.

## IRURAN

Ez dago langabeturik ia; izan ere, industria bera ere hazi egin da; lo-hiri ez bilakatzea nahi dute Udalekoek

## TOLOSA ▶

## Haur liburutegiko maileguak bueltatzeko deia

Tolosako haur liburutegiko erabiltzaileei maileguan daturtzen bideo, liburu eta bestelakoak Kultur Etxeko bulegora bueltatzeko eskatu dute. Halaber, haur liburutegia, orain arte lehen solairuan zegoena, itxi egingo dutela jakinarazi dute Errotan izango duen kokapen berria zabalitzen duten artean, urriaren hasieran.

## TOLOSA ▶

## Orixen institutuko ikasturtearen hasiera, bihar

Tolosako Orixen institutuan 2005/06 ikasturteko aurkezpena egingo dute bihar. DBHko maila guztietako ikasleak 09:00etan hasiko dira, Batxilerrako 1. mailakoak 10:00etan, bigarrenekoak 11:00etan eta ziklokoak ere 11:00etan. Klaseak datorren astelehenean hasiko dira.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

- ▶ Orendain. Medikua: 655595

- ▶ Orea. Medikua: 682228

- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

- ▶ San Esteban: 006800

- ▶ Gernikako arbola: 006900

- ▶ Amaroako dispen.: 672637

- ▶ Asunzion klinika 675799 -

- 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536

- ▶ Gurutze Gorria: 674888

- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970

- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02

- ▶ Donostiako autobusa: 361740

- ▶ Tolosaldea bus: 650621

- ▶ Leitzarano autob.: 948 221015

- ▶ Taxia: 670420

- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## BESTERIK.

- ▶ Ertzaintza: 538820

- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

- ▶ Tolargi: 650016

- ▶ Iurramendi egoitza: 670325

- ▶ Tolosa gasa: 675320

KULTURA ▶

# Kultur ekitaldi eta jarduera ugari izango dira irailean zehar

Musika, erakusketak, kirolak, hitzaldiak... batzen dituen egitarau oparoa aurkeztu dute hilabete honetarako

**NEREA LIZARTZA**

Abuztuko etenaldiaren ostean, adin guztietako jendeari zuzendutako ekitaldiak antolatu ditu Kultur Departamenduak hilabete honetarako. Musika, erakusketak, kirolak eta hitzaldiak izango dira, besteak beste, aukeran.

**ERAKUSKETAK**

**Ipuinartean I.** Hilaren 17tik azaroaren 12a bitartean izango da Aranburu Jauregian, Irazki elkarteak antolatuta. Erakusketak arratsaldero izango da zabalik, astelohenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

**KULTUR ASTEA**

**La Jara.** La Jara elkarteak antolatutako Kultur Astea hilaren 10etik 18ra izango da: meza, hitzaldiak, dantza saioak... egingo dituzte elkartearen egoitzan, Arramelen.

**HITZALDIA**

**Yoga Elkarte.** Hitzaldiak antolatu ditu Yoga Elkarteak irailean 28rako eta 29rako, Kultur Etxean.

**IPIUIN KONTAKETA**

**Ipuinartean.** Irazki elkarteak antolatutako ipuin kontaketa saioa hilaren 30ean izango da ikusgai, Kultur Etxean.

**GAZTE TOPAGUNEA**

**Asteburuetan.** Udako oporren ostean, hilaren 10etik aurrera



Jende andana bildu ohi du Garagardo Azokak Tolosan. AMAIA BELAUNZARAN

asteburu elkartuko dira Kultur Etxean, 16:30etik 20:30era, gazteei zuzenduriko ekintzeekin.

**MUSIKA**

**Tolosako Musika Banda.** Kontzertua eskainiko du hilaren 16an, Zerkausion.

**KIROLAK**

**Guinness errekorra.** Usabal kiroldegian inaugurazioa dela eta, hilaren 24tik eta 25era Carlos Peña Guinness errekorra egiten saiatuko da, 24 orduz igierian bizkar erara arituz.

**GARAGARDO FESTA**

**Tolosako VII. Garagardo Fes-**

**ta.** Irailaren 16tik 18ra bitartean garagardo dastaketa eta kultur ekitaldiak izango dira zazpigarren urtez Zerkausion.

**BESTELAKOAK**

**Mugikortasun Astea.** Ingurumen sailak antolatuta, Mugikortasun Astea izango da hilaren 16tik 23ra bitartean. Jokak, hitzaldiak, lehiaketak, eta bestelakoak egongo dira egitarauaren barnean.

**Kultur tailerrak.** Parte hartu nahi dutenentzat izena emateko epea hilaren 19tik 23ra bitartean izango da, Kultur Etxean bertan. Bestela, 943 67 03 83 telefono zenbakira ere dei daiteke.

EHIZA ▶

## Usakume tiraketa egingo dute Martin-Txiki zelaian

Ehiza atsegin dutenek hilaren 10ean dute hitzordua, Tolosako Ehiztari Elkarteari esker



Tolosako Ehiztari Elkarteak antolatu du lehiaketa. HITZA

**N. LIZARTZA**

Datorren larunbaterako, hilaren 10a, usakume tiraketa antolatu du Tolosako Ehiztari Elkarteak. Lehiaketa 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara izango da Tolosako Martin-Txiki zelaian. Ekitaldiko tiro zuzendaria Iñigo Gorriti-Insauti izango da. Epailan lanetan, berriz, Jose Angel Zaldua eta Juan Carlos Lopez ariko dira.

Parte hartzen dutenen artean eta irabazlearen artean banatuko diren sariak ez dira nolanhikoak izango. Izan ere, irabazleak 1.800 euro dirutan irabazi ahal izango ditu. Gainera, urdaiazpikoak, garaikurrak eta beste hainbat oroigarri banatuko dituzte parte hartzen dutenen artean. Sari hauen guztien banaketa izenemate ordenaren arabera izango da.

Proban aritzeko arauak Gipuzkoako Federazioak ezarritako dauzkan berberak izango dira. Antolatzaileek adierazi

dute berdinketarik balego lehenengo posturako bakarrik hautsiko dela; beste postuetan berdinketarik egonez gero ez dela hausketarik egingo, alegia.

Izena emateagatik 40 euro ordaindu behar dira, eta proban aritzeko beharrezkoak diren usakumeak prezioaren barnean sartzen dira. Elkartearen egoitzan eman behar da izena. Antolatzaileek proban parte hartzeko jarri duten baldintza bakarra hiru usakume botatzea da.

**DATUAK ▶**

- Gaia.** Usakume tiraketa.
- Eguna.** Larunbata, hilak 10.
- Ordua.** 11:00etatik 13:30era, eta 16:00etatik 18:00etara.
- Herria.** Tolosa.
- Tokia.** Martin-Txiki zelaia.
- Izen-ematea.** Ehiztari Elkartearen egoitzan, 40 eurotan.
- Antolatzailea.** Tolosako Ehiztari Elkarteak.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40  
1. planta - 7. Inbidea  
20400 TOLOSA

**Aduna.** 608 m2ko pabilioa alokairuan, zubi garabiarekin, bulegoekin.

**Alkiza.** Eraikitako 300 m2 dituen familia bakarreko etxebizitza salgai, 4.000 m2-ko lur-saila etxebizitzarekin eta beste 4.000 m2, bi partzelatan banatua.

**Anoeta.** Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

**Asteasu.** 1.050 m2 dituen bi solairuko eta 250 m2-ko solairu arte duen pabilioa salgai edo alokairuan.

Mota guztietako tresnaz eta hobekuntzekin hornitua.

**Beasain.** 45 m2 erabilgarriko etxebizitza eta lokal komertziala salgai.

**Berrobi.** 50 m2-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.

**Berastegi.** 100 m dituen bi solairuko borda salgai, moldatu beharra, 75.000 m2-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko laritz pinuarekin.

**Donostia.** Saguesen, 70 m2-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.

**Lizartza.** Eraikuntza berrikoak, 350 m2-tik hasita, 14.000 m2 pabilio salgai.

**Tolosa.** Santa Klara kalean, 90 m2 dituen etxebizitza berritua salgai.

Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.

**Tolosa.** Gernikako Arbolan, 155 m2 dituen etxebizitza salgai, kanpoaldea.

**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m2 dituen etxebizitza salgai. Kanpoaldea eta, eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

**Tolosa.** Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m2-koa. Kanpoaldea, igogailua eta trastelekuarekin.

**Tolosa.** Apataerrekian, lehenengo solairuan etxebizitza eta bigarren solairuan duplex-a. Berritua. Garajea eta lur-sailarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamenduak, 65 m2 erabilgarri.

**Tolosa.** Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko bi etxebizitza salgai.

## ALKIZA ▶ HIRIGINTZA



Herrigunean kokatuta dauden edukiontzia, atzo, inguruko hirigintzako lanak oraindik martxan daudela. I. GARCIA

# Lur azpiko edukiontzien zerbitzua martxan da

«Kostata, baina bete egin dugu urteetako ametsa», dio Aranzabe alkateordeak

IMANOL GARCIA

Alkizak duela gutxi aldatu du zaborrak kudeatzeko modua. Aurretik alkizarrek astean bi aldiz bide ondoan utzi behar izaten zituzten zabor organiko poltsak, eta birziklatzeko Foru Aldundiak jarritako edukiontzia herri gunean bakarrik zituzten. Orain herriko hiru puntutan lur azpiko edukiontzia ipini ditu Udalak. «Kostata, baina bete egin dugu urteetako ametsa», azaldu dio Hirzari Joxe Mari Aranzabe alkateorde eta Kultur eta Hirigintza zinegotziak. «Aspaldiko kontua da. Jendea kexu zen zabor etxean izan behar zuelako kamioia pasatuko zen egunaren zain».

Alkizako Udala diru laguntza bila aritu da azken urteotan

egin beharreko obrak gauzatu ahal izateko. «Ate joka ibili gara laguntza bila, baina ez dugu lortu eta azkenean Udalak berak ordaintzea erabaki du», azaltzen du Aranzabek. Esfortzu handia suposatu dio Udalarik kostu guztia bere gain hartzea. Guztira 80.000 euroko gastua izan da, edukiontzia ordaintzea eta zuloak egitearena.

Herriko hiru lekutan jarri dituzte lur azpiko edukiontzia: herrigunean, Anoetako bidetik joanda plazatik ehun bat metrora; Amalur etxearen ondoan, Asteasurako bidean; eta Basatxabal eta Antzieta baserrien inguruan, Anoetarako bidean. Guztira 13 edukiontzia jarri dira. Horietatik bost herrigunean: bi zabor organikorako, bat beirarentzako, bestea pa-



Anoetarako bidean dauden edukiontzia. I. GARCIA

pera eta kartoiarentzako eta bosgarrena ontziak eta plastikoen zatitako. Beste bi puntuetan lau jarri dituzte, zabor mota bakoitzarentzat bana.

Herriguneko lursaila Udalarena da, baina beste biak aipatutako etxeetako eta baserrietako lurra dira. Horrela, hitzarmen bat sinatu dute jabeek eta Udalak: 25 urtetarako hondakinrentzako edukiontzia bertan izango dira eta urte horietan lursail horien jabeek ez dute zabor tasa ordaindu behar.

## Hodiak lur azpian

Orain bi enpresek eramatean dituzte hondakinak. Horietako batek zaborrak eramatean ditu astean behin, eta besteak astean bitan beste edukiontzia guztietako hondakinak. Hori bai, herritarrek nahi duten unean sartu ditzakete hondakinak edukiontzietan. Halere, edukiontzia urdinean zenbait arazo izan dira, azkar betetzen ziren eta. Horregatik, Udalak bando bat atera du herritarrei eskatuz kartoiak ondo tolesteko, eta beraz, hondakinak leku gutxiago bete dezaten.

Edukiontzia jarrita eta martxan badaude ere, eginbeharreko lanak aprobetxatu dira hirigintzako beste obra batzuk egiteko. Plazatik etxe tasatuak eraikitzen ari diren lursaileraino espaloian jarriko dute. Egun ari dira obrak horiek gauzatzeko.

Baina aurretik, eginbeharreko lur mugimendua aprobetxatuz, zenbait instalazio sartu dituzte lur azpian. Horrela, telefonoa, argindarra, gasa eta argi publikoaren hodiak orain lur azpitik doaz herrigunearan zati horretan. Gainera, obra horiek herrian dauden bi transformadore elektrikoak lotuko ditu. Bata hilerriaren ondoan dago eta, egun, bietatik martxan dagoen bakarra da. Bestea etxe berrien ondoan kokaturik dago. Bien arteko loturak izateak, transformadore batek matxura izanez gero besteak argi zerbitzua mantentzea ahalbidetuko du.

**Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, 800 enpresa, kateak, denda, jatetxe... eta era guztietako enfitate baino gehiagok euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

[www.bai.euskarari.org](http://www.bai.euskarari.org)

**Bai Euskarari Ziurtagiria!**

**902 430026**

**Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!**

**hitza**

**ZIZURKILGO UDALA**

Festa giroaz goza dezazuela egun berezi hauetan!

Tel.: 943 69 10 12  
Teodoro Hernandez, 6 • 20109 Zizurkilgo [www.zizurkilgo.com](http://www.zizurkilgo.com)

ALEGIA ▶ KIROLA

# Ilusioz beterik hasiko du denboraldia Intxurre taldeak

Aurtengorako osatu diren lau taldeei, infantil mailako futbol 7 erako nesken talde bat batzeko aukera dago



Lurraldeko 2.mailan dagoen taldea, etxeko partida batean, artxiboko irudian. OLAIA ESKITXABEL

JULEN GOIKOETXEA

Hastear den denboraldiari begira, ilusioz beterik daude Intxurre futbol taldeko ordezkariek. Beste urte bat gehiagoz, herriko nahiz bailarako gazteei futboleko jokatzeko aukera eskainiko die Alegiako taldeak. Futboleko jokatzeko gazteek ondo pasatzea da Intxurrekoen helburua, eta horretarako hasi ziren duela aste batzuk entrenamentuetan. Aurtengoari begira, lau talde osatu dituzte Intxurrekoek: Lurraldekoena, gazteena, kadeteena eta infantilena. Aipatu behar da azken hauei futbol 7 eran jokatu

## JOKALARIAK ▶ LURRALDEKAKOAK

2005-2006 denboraldiari begira, ondoko jokalariek osatzen dute Intxurreko lurraldekoen taldea oraingoz. Izan ere, 17 jokalarik hauei, besteren bat gehitzea ez du baztertzeko zuzendaritzak. Iazko taldea oinarri gisa hartuta, gazte mailatik igotako eta beste tokietatik etorritako hainbat jokalarirekin osatu dute teknikariek datorren denboraldian Bigarren Mailan lehiatuko den taldea.

▶ Iker Arnaez.

- ▶ Haritz Fernandez.
- ▶ Eneko Garmendia.
- ▶ Ander Amubieta.
- ▶ Mikel Oiarzabal.
- ▶ Mikel Imaz.
- ▶ Imanol Garmendia.
- ▶ Gari Garzia.
- ▶ Iker Esnaola.
- ▶ Mikel Legarra.
- ▶ Xabi Sarasola.
- ▶ Xabat Renobales.
- ▶ Ion Abxutegi.
- ▶ Kepa Arocena.
- ▶ Mikel Arbillaga.
- ▶ Etxebe.
- ▶ Alberto Guaza.

duten nesken talde bat batzeko aukera dagoela. Talde nagusia, Lurraldekoena, Bigarren Mailan ariko da, iaz ez baitzuten igoera lortzerik izan. Iazko taldeetik sortu diren hutsuneak gazteen taldeetik igotakoek eta kanpotik etorritako jokalariek bete ditzuzte. Gauzak horrela, 17 jokalariz osaturiko taldea du Santosek aurtengorako bere agintutara.

Aurtengorako, Lehen Mailarako igoera jarri dute helburutzat Intxurrekoek. Duela bi urteko jaitsieraren ondoren, taldea merezi duen tokira itzultzen saiatuko dira aurtengorako lurraldeko jokalariek. Baina horretarako, jokalarien indarrak aparte, beste zerbait ere behar du taldeak: zaletuen laguntza, ezinbestekoa izango dena denboraldi txukun bat egiteko. Lehen partida hilaren 17 edo 18an jokatu dute, Murnibe taldearen aurka.

## Beste taldeak ere gogotsu

Lurraldekoak ez dira, ordea, aurtengorako Elorri ikusi ahal izango diren bakarrak. Gazte mailako mutilek, nahiz eta taldea osatzeko arazoak izan, Lehen Mailan jokatu dute, eta aurtengorako denboraldian egin zuten lan ona ikusita, ez dute maila mantentzearekin soilik konformatu behar. Joxean Otañoren mutilek larunbatean ekingo diote denboraldiari, Texas Lasartearen aurkako partidarekin.

Kadete mailako mutilei dago kienean, aurtengorako osatu dute taldea. Eneko Garmendiak entrenatzen duen taldeak ere gogotsu ekingo dio denboraldiari, eta denboraldi on bat egitea jarri dute aurtengorako helburutzat.

Infantilei dagokienean, mutilek Lehen Mailan jokatzeko jarraituko dute Xabat Renobalesen gidaritzapean. Intxurreko gazteenek partida bakoitzean duten gutzia emango dute hiru puntuak eskuratzearren.

Beraz, aurtengorako, Intxurreko zaleek izango dute euren taldea animatzeko aukera Elorri jokatu diren partidetan.

ALEGIA ▶

## Aralar Institutuan bihar hasiko da kurtsoa

Aralar Institututik jakinarazi dutenez, 2005-2006 ikasturtea ostegunetik hasiko da. 10:00etatik 12:00etara luzatuko da lehen egun hori, eta garrarioa ohi bezala ibiliko da. Gogoratu ere iraileko ordutegia goizez soilik izango dela, hau da, 08:30etik 14:30era, eta ez 08:00etatik 14:30era, atzoko alean modu okerrean argitaratu genuen bezala.

VILLABONA ▶

## Tinta areto futbol taldeak neskak behar ditu

Villabonako Tinta areto futbol taldeak neskak behar ditu hastear den denboraldi berrirako taldea osatu ahal izateko. 17 urtetik gora izatea da Tintakoek jarri duten baldintza bakarra, eta taldean sartu nahi duen edonork gaur, asteazkena, 19:30ean du hitzordua, Olaederra kiroldegian. Informazio gehiago nahi izanez gero, 607 31 37 44 telefono zenbakira deitu behar da.

AMEZKETA ▶

## Zumadi eskolak bihar ekingo dio ikasturteari

Amezketako Zumadi eskolako ikasleek bihar, osteguna, hasiko dute kurtsoa. 2005-2006 ikasturteko lehen bi asteetan, hilaren 26a arte hain zuzen ere, goizez soilik izango dira klaseak, eta 09:30etik 13:30era luzatuko dira. Data horretatik aurrera ohiko ordutegia izango dute Zumadi eskolako ikasleek. Beraz, bihar izango da oporren ondoren eskolara itzultzeko lehen eguna.

hilberriak ▶



**Marije Golmaio Esnal**



Olatu bareak  
muxu eman dio hondarrari,  
lo dago  
ixiltasunaren izara zuria

Zumaiako Herri Eskola  
(Lehen Hezkuntza-Institutua)

ZUMAIA, 2005eko irailaren 7a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

## ELDUAIN ▶

**Biharko herri bazkarirako txartelak salgai**

Bihar, herriko jaien baitan, herri bazkaria antolatu dute. Bazkarira animatzen denak txartelak eskuratu ahal izango ditu, 20 euroren truke, El-duaingo udaletxean. Bazkaria 14:00etan hasiko da, eta Kontzeju tabernan egingo da. Bertan eskainiko den menua honakoa izango da: iberikoak, entsalada epela gula eta ganbekin, legatza kokotekin edo entrekota eta postrea.

## LIZARTZA ▶



Patata patata ikuskizuna eskainiko dute Pirritx eta Porrotbek. HITZA

**Pirritx eta Porrotxerako txartelak salgai**

Hilaren 16ean, ostirala, 17:30etan, Pirritx eta Porrotx pailazoan Patata patata ikuskizuna antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak, Lizartzako Udalarekin elkarlanean, Lizartzako frontoian. Sarrera txartelak salgai daude dagoeneko 5 euroren truke, eta horiek eskuratzeko Lizartzako udaletxera eta Galtzaundiren egoitzara jo beharko da.

## ELDUAIN ▶

**Bihar 'Berto musikatuak' Kontzejuan**

Elduaingo jaien egitarauaren barnean, bihar arratsaldean bertso saio bereziaz gozatze-ko aukera izango da, hain zuzen ere, Galtzaundi Euskara Taldeak Elduaingo Udalarekin elkarlanean antolatu duen Irrintzi taldearen Berto musikatuak ikuskizunaz. Herriko Kontzeju tabernan izango da, 16:00etatik aurrera.

## IBARRA ▶

**2005-2006 ikasturtearen hasiera**

Ibarrako Uzturpe ikastolak jainarazi du ikasturtearen hasiera horrela izango dela: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak hilaren 12an hasiko dira, eta hilaren 16a bitarte eskolak goizez izango dituzte. DBHko ikasleek, berriz, bihar 11:00etan izango dute ikasturte berriaren aurkezpena. Horiek ere, lehenengo astean goizez izango dituzte eskolak.

## IBARRA ▶ GIZARTEA

**Xanti Artolak irabazi du Bartolo txekorra**

I.Terradillos ▶ Urtero bezala, aurten ere Ibarrako San Bartolome jaietan txartelak salgai jarri zituzten txekor bat zozketatzeko. Jaien ostean, abuztuaren 28an hain zuzen, egin zuten zozketa,

eta 684 zenbakidun txartela izan da aurtengo irabazlea. Txartel sarituaren jabea, berriz, Xanti Artola bedaiarra suertatu da. Argazkian, bedaiarra Bartolo izeneko txekorrarekin. HITZA

## LIZARTZA ▶ KULTURA

**Hilaren 20tik 25era izango da Kaxianoren omenezko astea**

Jaialdiak, orogarriaren aurkezpena eta bazkaria izango dira ekitaldi nagusiak; bazkarirako txartelak salgai daude

## IÑIGO TERRADILLOS

Gero eta egun gutxiago gertatzen dira Lizartzan Kaxianori merezitako omenaldia egin diezaioten. Izan ere, hilabetetan entseguetan aritu ondoren, azken prestaketekin dabilza hilaren 20tik 25era dena behar bezala irten dadin.

Egun horietan guztietan Lizartzako itsuaren edo Kaxianoren —hala deitzen zioten lagunartean— musikaren, historiarren edo bizitzaren inguruko hainbat ekitaldi izango dira. Halaber, ekitaldi horietatik hilaren 24an eta 25ean izango diren jaialdiak eta bazkariak azpimarratu



Kaxiano Ibaruren. HITZA

nahi izan dituzte antolatzaileek. Hilaren 24ko jaialdia oso berezia izango da, bertan parte hartuko duten artista guztiak (soinujoleak, txistulariak, dan-

tzariak, bertsolariak, txaranga, dultzaineroak...) herritarrak izango baitira. Hilaren 25ean, berriz, inguruko herritarrek hartuko dute parte. Egun horietan aipatzekoa da, baita ere, Kaxianoren orogarriaren aurkezpena egingo dutela.

**Txartelak salgai**

Bestalde, hilaren 25ean egingo den bazkarirako txartelak salgai daudela jakinarazi dute. Horiek Tolosako Agustinenea, K 2 eta 66 tabernetan eta Lizartzako tabernetan, dendan eta ileapaidegian eskuratu ahaliko dira. Halaber, horiez gain, Kaxianoren orogarriaren maketa zozketatuko duten txartelak ere salgai daude.

Ekitaldi guztiak antolatzeko diru-laguntzak behar dituztela ere azaldu dute antolatzaileek. Horrela, lagundu nahi dutenek, 2101 0043 1700 1162 5985 (Kutxa) edo 3035 0028 1902 8009 5776 (Euskadiko Kutxa) kontu korronteetan egin ahaliko dute.

## iragarki laburrak ▶

**GALDUTAKOAK**

**Zakurra.** Igandean Oresako Basabe erreka ondoan ardi zakurra azaldu zen. Ile burikoa. Galdu duenak dei dezala 943 68 22 14 telefono zenbakira.

**LANA**

**Arotza.** Arotzeria metalikoko muntatzaile batek ikastuna behar du. Deitu 665 70 09 79 telefono zenbakira.  
**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta

oporren ordezkapenak egiteko sukaldaria behar da.  
Deitu 943 691 933ra.

**SALGAI**

**Kotxea.** Citroen Berlingo markako

autoa salgai. 1998koa. Diesela. Egoera onean. Deitu 650 32 45 06 zenbakira.

**Egurra.** Su egur lehorra salgai. Paga eta Haritza. Telefona: 615 75 57 62 (arratsaldeetan).

ERREMONTA ▶

# Eskualdeko pilotariak erremonteko hainbat trofeoz jabetu dira

Binakako Kursaal Sariketan, aurreneko bi lekuak lortu dituzte; banakakoan, berriz, hirugarrenaren saria



Ruben Astibia txapelondorde atera zen Kasino Kursaal Sariketako Binakakoan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo larunbatean jokatu ziren erremontean jokatu ohi diren sariketa urrietako baten finalak Galarretan: Kasino Kursaal torneokoak, bai banakakoa, baita binakakoa ere. Buruz-buruko finalean, Ezkurrak irabazi zion Lizasori. Eta hirugarren lekua, berriz, Patxi Zeberio, Zeberio II.ak lortu zuen, elduaindarra bera.

Bestalde, binakako finala ere jokatu zen, ordea. Eta han, lau pilotarietatik hiru Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak izan ziren: Matxin IV.a-Aizpuruak 35, Zalakin-Astibia 28 bukatu zuten finala. Aizpuru eta Zalakin tolosarrak dira; Astibia, berriz, leitzarra. Ordezkaritza zabala, beraz, gure eskualdeetako.

Kontuak kontu, HITZA Ruben Astibiarekin mintzatu da Binakako finala eta egindako lanarekin gustura ageri zen bera: «Pilotalekua jendez beteta ageri zen, eta nik uste ikusteko partidu polita izan zela finalekoa. Gu behinik behin gustura gelditu ginen egindako lanarekin», zioen. Izan ere, markagailuko azken emaitzak berak islatzen duen moduan, partidua borrokatua izan zen. Zalakin eta Astibia 4 eta 1 irabazten hasi ziren, baina besteek aurrerakada egin zuten eta ordutik erabat aurretik joan ziren: «Erabat, tanto bat edo bi aurre-



Zeberio (atzean) izan zen hirugarren banakakoan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

tik gelditu zitzaizkigun: bost bat egiten zituzten errenkadan, 1-2ra hurbiltzen ginen, ia harapatuan, baina berriz ere lehengora. Holaxe ibili ginen partidu ia guztian zehar», argitu zuen Astibia. 26. tantoaren bueltan, Matxinek eta Aizpuruak arrankada jo zuten, 35eraino joanez eta garaipena lortuz. «Sailkapeneko ligaxkan, horietan aurkakoa emaitza berbera lortuz bukatu ge-

nuen, baina orduan gure aldekoa izatea suertatu zitzaigun», argitu zuen.

Hauxe izan dute erremontelarietako aurtengo azken sariketa. Orain, ohiko lanera itzuliko omen dira. «Hileko 9-10 partidu jokatzeko ditugu, Galarretan. Partidua jokatu eta etxera», adierazi zuen pilotari leitzarrrak. «Orain Euskal Jai ere irriko dute eta han ere ariko gara», argituz batera.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Ateka Beltzako bilerara joateko deia egin dute gazteek. J. ASTIBIA

## Gaur dute bilera Ateka Beltzaren erabileraz

Herriko eragile eta talde guztiak bertan parte hartzera gonbidatuta daude

J. ASTIBIA

Gaur iluntzerako, 19:30erako zehazki, eta Ateka Beltzan bertan, bilera deialdia egin du Leitzako Gazte Asanbladak, hain zuzen ere «Ateka Beltza etxearen erabileraren inguruan» hitzegiteko, jakitera eman zuten.

Leitzako Gazte Asanbladak «herriko eragile eta talde guztiak» bertan parte hartzeko deia egin die, «guztion artean, etxe horri erabilpen egokia

eman diezaiozun, denon artean erabakitzea delako proposena», ziotenez. «Oso garrantzitsua da ahalik eta talde gehien iritzia jakin eta kontutan hartuz lan egitea».

Jakina denez, herriko gazteak uztaila bukaeran hasi ziren Ateka Beltza etxe erabiltzen. «leku baten premia» zutela eta. Ordutik, etxearen garbiketarako aritu dira eta beren urratsak finkatu ahal, herriko gainerako taldeekin bilerak ere burutu dituzte.

LEITZA ▶ ESKUZKO PILOTA

## Oinatz Bengoetxeak Lekeitioko saria lortu du

Irabazten duen aurreneko udako sariketa da harentzat; Zearra izan du lagun atzean

J. ASTIBIA

Astelehenean lortu zuten Oinatz Bengoetxeak eta Oier Zearrak Lekeitioko Pilotako Sariketako txapela. Leitzarrarentzat hauxe izan da udan jokatu ohi diren trofeoetan irabazten duen aurrenekoa.

Udan herrietako festetan egiten diren ohiko jaialdiez gain, zenbaitetan torneok egiten dituzte. Hauetan gehienetan aritu da bera eta herenegun eskuratu zuen sari gorenaren. Pilotari hoberearen saria ere berari eman zioten.

Partidu gogorra izan zen final horretako, 22-21eko mar-

kagailuarekin bukatu baitzuten, Gonzalez eta Lasa III.aren aurka jokatu.

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Ikusi eta parte hartu.** Hitzaren web-orrian gure herrietako berriak fresko fresko ageri dira eta bestelako zerbitzuak ere, dela agenda, dela merkatu txikia, dela hemeroteka, agurrak, farmaziak... eskuragarri ditugu. Erabili, ikusi eta parte hartu!!

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 7a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Anoeta.** *Etzetik eros ezazu* mintegia, KZgunean. Bihar, 17:00etatik 19:00etara.  
**Berastegi.** Yoga, taila eta eskulan ikastaroak antolatuta dituzte jubilatuentzat. Izen-ematea, Jubilatua Elkartearen.  
**Ibarra.** Izaskun izena dutenen arteko bazkaria, hilaren 18an. Izena eman nahi duenak Izaskungo Izaskun jatebatera edo 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu behar du (goizez), hilaren 15a baino lehen.  
**Lizartza.** Hilaren 16an Pirrixt eta Porrotxen ikuskizuna antolatuta du Galtzaundi Euskara Taldeak. Sarrerak salgai, 5 euroren truke, egoitzan eta Udalean.  
**Tolosa.** Tolosako saskibalo taldeak dei egin die 1992an eta 1993an jaiotakoei taldean izena eman dezaten. Denboraldi berriko proba egin nahi duenak gaur du hitzordua, 17:00etan, Usabalen.

**JAIAK**

**Zizurkil.** 16:00etan, haurren txupinazioa; 17:00etan, Pirrixt eta Porrotx, merienda eta buruhandiak; 17:00etan, futbol txapelketa; 20:00etan, txupinazio nagusia; 21:30ean, koadrilen afaria; 23:00etan, Mulumbo perkusio taldea.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40  
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre (107.5, 101.2 FM)**  
11:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazinaren hasiera (14:00ak arte): Joxe Landarekin eguraldia, albisteak, Hitzaren gaurko alea, eskualdeko oharrak...  
11:30. Tolosako azokaren inguruko berriak.  
12:00. Eskualdeko festen berri: Zizurkil, Alkiza, Lizartza, Ekuain eta Sorabilla.  
12:40. Zortziko Aldrebesa, bertso-lariari eskainitako tartea.  
13:00. *Izkituko koloreak* irrati nobela.  
13:15. Lehiaketa eta disko eskainien tartea.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa* saioaren errepikapena.  
22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Berrikuntzak webgunean

**WWW.TOSALDEKOHITZA.INFO ▶ HITZAK** webean informazio atal berriak jarri ditu eta irakurleek parte hartzeko aukera gehiago dituzte

**ERREDAKZIOA**

**T**OSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK beste pauso bat eman du, [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info) berritu egin duela. Eskualdean euskarazko komunikabide sarea osatzen joatea da HITZAREN enpresa Tolosa Herria Hedabideen helburu nagusia, eta webgunea izan zen proiektuaren bigarren fruitua, egunkariaren ondoren.

Orain, weba berrituta, informazioaren erreferentzialtasunean gehiago egin nahi du aurrera, eta hori betiere garrantzitsua izango da euskararen normalizaziorako.

Berrikuntzekin, [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)-k ahal den informazio gehien eman eta ahal den parte-hartzerik handiena lortu nahi du. Eta, horretarako, lehendik zeuden atalez gain, hauek ere badaude orain: **Informazio atal gehiago.**

- ▶ Eguneko argazkia sartuko du (*Irudia* atala).
- ▶ Datua, esaldia edo bitxikeria ere bai (*Bat-batean*).
- ▶ Eguneko egunkariaren eduki osoa, herriz herri jartzeaz gain, txoko batean ere bai (*Eguneko titularrak*).
- ▶ Eguneko egunkariaren azala ikusgai izango da.
- ▶ *Bilaketak* eta *Hemeroteka*. Irakurleak informazioa topatu ahal izateko (laster jarriko da).

**Parte-hartzea sustatu.**  
[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)-k irakurleentzat atek zabal-zabalik ditu lehendabiziko egunetik, *Inkesta*-ren eta *Eztabaida*-ren bidez, eta orain gehiago zabaldu ditu. Izan ere, proiektu hau plurala eta parte-hartzailea da, eta webaren irakurleak

**1. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO**  
**1. Iragatik erabaki artzeak**  
1. Iratzeak bidertu dituztenak  
1. Iratzeak bidertu dituztenak  
1. Iratzeak bidertu dituztenak

**2. IRUDIA**  
2. Irudia sartuko da  
2. Irudia sartuko da  
2. Irudia sartuko da

**EGURALDIA**  
**GAUR 14/25**  
**BIHAR 10/18**  
**ETZI 10/17**  
**EHKME Fundazioari esker**

*Irudia eta Bat-batean* dira atal berrietako bi.

Eguraldia kontsultatzeko aukera izango da.

**LEITZA**  
**Ikusmin handia piztu du judo saioak**  
• Zazpi judokak kirolaren ezaguerriak azaldu zituzten, igerilekuan  
**TOLOSA**  
**Helduek ikasteko aukera HHHn**  
• Izen-ematea zabalik da egoitzan

**BIDEGOIAN**  
**Eskualdeko zaldunak, punta-puntan**  
• Asier Mujika eta Iñaki Izagirre eta, bikain  
**LEITZA**  
**Leitzako I. Piloa Txapelketaren lehen pilotakada**  
• Finalurrako faseko lehendabiziko bikoteen izenak erabakita daude

**IRAKURLEEN IRITZIAK**  
• Helduei zuzendutako ikastaroak prest  
1 Erantzun: **Azkenak** Maria Iturriz | 2005-09-06 | 17:45:00  
• Eskualdeko zaldunak punta-puntan zaldi lasterketan  
1 Erantzun: **Azkenak** Ikerrikalori | 2005-09-06 | 19:09:02  
• Abian da oporretako argazki lehiaketaren bigarren edizioa  
2 Erantzun: **Azkenak** Julen | 2005-09-02 | 16:20:00

Irakurleek albistei buruz beren iritzia emateko parada izango dute.

nahi duen iritzia eman ahal izango du nahi duen gaiaz atal berri hauekin ere:

- ▶ Albisteetan erantzunak jartzeko aukera dago. Horren atal bat ere badago (*Irakurleen iritzia*).
- ▶ *Zeuk idatzi* atala berria da. Irakurleak nahi duen iritzia edota informazioa sartu ahal izango du, eta horietan ere erantzun daiteke.

Atal horietan, *Eztabaida*-n eta *Inkesta*-n bezala, iritzia modu anonimoan eman ahal izango da, baina betiere arau batzuk bete: errespetuan idatzitakoak izan behariko du eta, norbaiti zuzendutakoan, izen-abizenez sinatua. Bestela, **TOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK** eskubidea izango du arauak betetzen ez dituzten iritzia kentzeko.

**Besterik.**  
Agurrak Internetez bidaltzeko aukera (fitxategi osoa bete), *Eguraldia*, eta *HITZAREN TXOKOA*-n dauden zozketak-eta ikusteko aukera.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Irati Goikoetxea (Okariz). Pottoki, gaur zure lehenengo urtea. Zorionak Tolosako aiton-amonen partetik.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**  
**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**